

## Abiatu da Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren 3. aldia

2010/10/14

**2010eko urriaren 13an** abiatu zen Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren hirugarren aldia. **Bertan 36 ikaslek eman dute izena**, bost probintziatik etorrira. Julen Arexolaleiba ikastaroko koordinatzaileak egin zien ongi etorria, batzorde pedagogikoko kideekin batera. Julenek ikastaroaren helburuak azaldu zituen, eduki arloak eta lan prozedurak. Ondoren, ikasgelan zeuden guztiek beren burua aurkeztu eta zerk bultzatuta eman duten izena azaldu dute.

Atsedena ostean, Joan Mari Torrealdaik hartu zuen hitza. **“Egunkariaren epaiketaren harira garatutako diskurtsoak”** izan zituen hizpide. Bertan aztertu zituen zelakoak esan ziren euskaraz eta euskal kulturaz akusazioetan eta sententzian. Halaber, aztertu zituen prentsan hizkuntzaz eta ereduaren gainean esandakoak. Kezkatuta agertu zen, oraingoz ez baitio akaberarik ikusten oldarrari.

### Aditu tituluaren bilakaera

Aditu titulu 2007-2008 ikasturtean egin zen lehen aldiz. Esperientziak erakutsi duenez, sakondu egin behar da didaktika ereduari; hau da, ikasleei aukera handiagoa eman partehartzeko, ikasitakoan sakontzeko, nor bere interesen arabera ondorioak ateratzeko. Arreta berezia eskainiko zaizkie:

- Hezkuntza sistemari.
- Tokian tokiko ekimen eredugarriari.

### Helburuak

Ikastaroak helburua du **corpus batean biltzea euskal kulturgintzari buruzko jakintza**, barreiatua dago-eta, **eta belaunaldi gazteei transmititzea**. Halaber, ikusita zelako desafioak dituen euskal kulturgintzak, bilatzen du formazio multifokala eta praktikoa egitea. Hori guztia arituek eta adituek emanda. Beste alorretako eskura jarriko du, orobat, kulturgintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak. Horretarako, bi multzo harreman eragingo ditu: aritu eta adituen multzoa eta bihar-etziko eragileen multzoa, gai honetan jantzi nahi duena.

